



49. Heineken Jazzaldia

Hizkuntza erabileraren neurketa

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1.1. Lan metodologia

2. Idatzizko materiala

- 2.1. Programazio liburuxka
- 2.2. Esku egitaraua
- 2.3. Esku orriak, sarrerak, abonua...
- 2.4. Prentsa oharra
- 2.5. Web orria
- 2.6. Jazzaldiko kartela
- 2.7. Bestelakoak: Paisai linguistikoa,...

3. Ahozko erabilera

- 3.1. Prentsaurrekoak
 - 3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpenaren prentsaurrekoa
 - 3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk
 - 3.1.3. Balorazio prentsaurrekoa
- 3.2. Kontzertuetako aurkezpenak
- 3.3. Kontzertuetan zehar musikariek abestien tartean erabili duen hizkuntza.
- 3.4. Bestelakoak
- 3.5. TxikiJazz

4. Ondorioak

1. Sarrera

1998. urtean BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuen eta, orduz geroztik, urtero aztertu du musika jaialdia. BAGERAK Donostian egiten diren hainbat ekintzetan hizkuntza erabilera zer nolakoa den aztertu ohi du.

Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, eta hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskararen erabilera neurtzea beharrezkoa da.

Jazzaldiaren funtsa, musika emanaldiak diren neurrian, ahozko hizkuntza erabilera, saioen aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan erabiltzen dena mugatzen da. Idatzizko materialean berriz, esku liburu, kartel, pasai linguistiko eta abar hartzen dugu kontuan.

Donostian egiten diren beste ekintza batzuetan bezala, ahozko edo idatzizko hizkuntza aztertzeari ekin diogu, euskarak hauetan jasotzen duen tratamendua ezagutu asmoz.

Behaketa eta bertatik ateratako emaitzak egoera baloratzeko bitartekoak besterik ez dira. Honela bada, garrantzia urtean zehar egindako lanak eta bertatik ateratzen diren emaitzek dute.

1.1. Lan metodologia

Denetara 9 lagun aritu dira jarraipena egiten, euskararen ahozko erabileraren eta idatzizko materiala aztertuz.

Behatzaileekin Jazzaldia hasi aurretik bildu gara eta egitaraua eskutan, bakoitza zein emanaldira joango den zehaztu dugu. Fitxa betetzeko argibideak eman dizkiegu eta Jazzaldia amaitutakoan, aipatutako fitxak bildu ditugu. Azkenik, bildutako datuekin txosten hau osatu dugu.

Ohar modura esan, txostenean ele bietan edo bi hizkuntzetan esaten denean, besterik zehaztu gabe, euskaraz eta gaztelera esan nahi duela.

2. Idatzizko materiala

2.1. Programazio liburuxka.

Jazzaldiari buruzko informazioa luze zabalean azaltzen den liburuxka da. Musikari eta talde bakoitzaren berri ematen da. Aurtengo edizioak 74 orrialde ditu.

Azalean, 2014ko kartela azaltzen da: "49 Heineken Jazzaldia" uztailak 23-27 julio Donostia/San Sebastian (lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz). Prezioa ere euskaraz eta ondoren gazteleraz idatzita dago. Azken orrialdean iragarki bat ageri da, Heineken-ena ele bitan (iaz gazteleraz eta ingelesez idatzita zegoen, aurtan berriz, gazteleraz eta euskaraz).

Lehenbiziko orrian, aurkibidea dago lehentasuna euskarak du.

Jarraian, Juan Karlos Izagirre Donostiako Alkatearen sarrera idatzita dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz eta hitzez-hitzezko itzulpena da, euskaraz eta gaztelaniaz informazio bera azaltzen baita (euskaraz beltzean, gazteleraz grisean).

Ondoren, egunez eguneko egitaraua azaltzen da (euskaraz eta gazteleraz).

Jarraian agertokien informazioa irakurri daiteke (Trinitate plaza, Kursaal Auditorioa, San Telmoko gauak, Agertoki berdea, Frigo gunea, Heineken Terraza, Coca-Cola gunea, Nauticool, Basque Culinary Center, Eureka Zientzia Museoa eta Altxerri). Informazio osoa bi eletan dago euskarari lehentasuna emanaz (izenburuak letra lodiz eta testua beltzez).

22. orrialdean jaialdi iraunkorra, garbia eta seguruaren inguruko artikulua euskaraz eta ondoren gaztelaniaz dago.

28. orrialdetik 55. orrialdera, ekitaldietan parte hartuko duten musikariei buruzko azalpenak daude lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz (lehentasuna euskarak du).

57. orrialdean, 2014ko Donostiako Jazzaldia sariaren artikulua dago. Ezkerreko zutabea euskaraz idatzita (beltzez) eta eskuineko zutabea gazteleraz (grisez).

59. orrialdean, Jazza eta gastronomiaren inguruko informazioa euskaraz (beltzez) eta ondoren gazteleraz (grisez) idatzita dago.

60 eta 61. orrialdetan, "Heineken + pintxo"-ren informazioa dago. Guztia ele bitan euskarak lehentasuna duelarik.

62. eta 63. orrialdean, Heineken jazzaldian parte hartzen duten lau jatetxeen menuak bi eletan daude idatzita (euskarak lehentasuna du).

65. "Paradisu bikoitza" erakusketaren nondik norakoak eta ardoen inguruko informazioa euskaraz eta ondoren gazteleraz daude.

71. orrialdean eskaintza turistikoa azaltzen da, hau ere, bi eletan.

Azkenik, gaueko autobusen, argibide orokorren eta Jazzaldiaren produktuen nondik norakoak daude (bi eletan).

Liburuxkan agertzen diren iragarkietan elebitasuna gailendu da eta ez hori bakarrik, aurten, iragarki guztietan iragarleek euskara erabili dute: bi eletan 11 iragarki (hauetako bi iragarkietan gaztelera gailendu den arren euskara ere erabili da), euskara hutsez 3, lau hizkuntzetan beste 3, euskaraz eta ingelesez iragarle 1 eta hizkuntza gabe beste 1:

Euskaraz eta gaztelaniaz dauden iragarkiak: (9)

- 18. or Coca-Cola
- 25. or El Diario Vasco
- 26. or Cuadernos de jazz
- 27. or TxikiJazz
- 68. or Getxoko Jazzaldia
- 70. or Donostia-San Sebastian Turismoa
- 75. or Kutxa
- 67. or Cadena Ser
- Atzeko azala Heineken

Gehien bat gazteleraz (2)

- 66. or Barcelo
- 69. or Euskadi Basque Country

Euskara hutsezko iragarkia: (3)

- 02. or Cornetto
- 04. or Skoda
- 64. or Fnac

Lau hizkuntzatan: (3)

- 23. or #Jazzaldia
- 24. or San Telmo Museoa
- 56. or Donostia 2016

Euskaraz eta ingelesez (1)

- 21. or Hotel Maria Cristina

Hizkuntzarik gabe: (1)

- 58. or Universal Jazz Spain

2.2. Esku egitaraua

Esku egitarauari dagokionez, alde batean, Jazzaldiko kartela (bi eletan), mapa (bi eletan) eta antolatzaile, babesle eta laguntzaileen logotipoak (izenburuak bi eletan) daude. Esku orriaren barnean, Jazzaldiaren egitarau koadroa dago guneka banatuta (datak eta azaltzen den informazio guztia bi eletan dago. Kontzertuen izenak, jatorrizko hizkuntzan).

2.3. Esku orriak, sarrerak, abonua...

Atal honetan Heineken Jazzaldiaren inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan hartzekoa da hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

Antolakuntzatik eskuratu ditugun esku orri zein esku egitarauak, bi hizkuntzetan idatzita daude (hau da, euskaraz eta gaztelaraz): "Jazzaldi menua", egitarau laburtua, egunez egun talde guztien zerrenda, agertokiaren banatutako esku orriak, Tokiko Taldeen kontzertuen egutegia, TxikiJazza egitarau, kontzertu batzuetan banatutako esku orriak (Trinitate plazan, Victoria Eugenia eta San Telmon) ...

Fnac-ek kaleratutako uztailleko programazio orrian, Heineken Jazzaldiaren inguruko informazioa nagusia gaztelaraz dago, programazioaren azalpena aldiz, euskaraz (eskuinean laranja), data bi eletan eta "actuaciones", berriz, gaztelaraz bakarrik idatzita dago.

Agenda Cultural fnac

DONOSTIA JULIO UZTAILA 2014

HEINEKEN JAZZALDIA del 23 al 27

La ciudad se prepara para el Festival de Jazz más importante de Europa. Del 23 al 27 de julio el Heineken Jazzaldia trae a artistas de primerísimo nivel a Donostia y la Fnac, un año más, contará con una carpa de 100m para la venta de música y el merchandising oficial del Festival. Además, contaremos con la exposición "Paraiso doble" de Juan G. Andrés, talleres del Club Fnac Kids dentro del TxikiJazz, firmas de artistas y 8 actuaciones en el Fórum que tendremos al lado del Kursaal.

JAZZALDIA FNAC KIDS KLUBA

PERKUSIO TAILERRA
ostirala viernes 25 11:15h
Taller honetan haurrek hainbat erritimo ezagutuko dituzte eta sonortate anitzak deskubrituko dituzte djembe eta darbukekin.

DETEKTIBE MUSIKALAK
larunbata sábado 26 11:15h
Grabazio baten bidez haurrek jazz banda bateko musika-tresnen hotsak identifikatuko dituzte, eta ondoren, horiek marraztu eta panel batean itsatsiko dituzte mural bat sortzeko.

FUNKYBITHON
igandea domingo 27 11:15h
Monitore baten laguntzaz haurrek funky koreografia bat sortuko dute.

ACTUACIONES

asteazkena miércoles 23
UKULELE CLAN BAND 21:30h

osteguna jueves 24
JULIEN ELSIE 20:30h
BELOP 00:30h

ostirala viernes 25
SKY BEATS 20:30h
ANNI FROST 00:30h

larunbata sábado 26
REDTONE 20:30h
JUNAITE 00:30h

igandea domingo 27
DOBLE ELEFANTE 20:30h

Bestetik, Trinitate enparantzan, Victoria Eugenia eta San Telmo museoan izan diren emanaldietarako eskuratu ditugun sarrerak eta gonbidapenak honela zeuden idatzia:

Sarrerak orokorrean bieletan zeuden baina zenbait informazio gaztelaraz bakarrik irakur zitekeen (lekuen helbideak, descuento, Gast. Servicio, total). Taldearen izena, aldiz, jatorrizko hizkuntzan.

Gonbidapenak (Victoria Eugenia Antzokirako, San Telmo Museoan eta Kursaal Auditoriorako zenbait kontzertuetarako) ere, bi eletan jaso genituen eta euskaraz lehentasuna zuen (euskaraz idatzitakoa letra lodiz zegoen).

Nauticoolen "Staff-food, drink, music" esku orria jaso genuen lau hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaraz, ingelesez eta frantsesez) idatzita.

Maria Cristina Hotelean banatzen zituzten Cocktail-en esku orria gaztelara hutsez idatzita zegoen.

Eusko Jaurlaritzak kaleratutako "Pais Basque" esku liburuxka frantsesez argitaratu zuten.

Gune ezberdinetan antolakuntzak jarritako taberna eta salmenta postuetan ikusi ditugun prezioen salmentak bi eletan idatzita zeuden.

2.4. Prentsa oharrak

BAGERAn, posta elektronikoz bidez jasotako mezu guztiak ele bitan jaso ditugu (lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaraz). Atxikitako dokumentuen izenak ere, euskaraz (lehenengo) eta gaztelaraz (ondoren) jaso ditugu (bul hasiera.doc / bol inicio.doc, prentsaurrekoak - ruedas de prensa.doc).

Prentsa bulegoarekin izan ditugun mezu trukaketak euskaraz izan dira.

Prentsaurreko guztietan banatutako prentsa dossierrak euskaraz zein gaztelaraz jasotzeko aukera zegoen.

2.5. Web gunea

www.heinekenjazzaldia.com web gunea:

Webgunea zabaltzerakoan euskara da lehenengo hizkuntza eta ondoren gaztelaraz edo ingelesez zabaltzeko aukera ematen du.

Oro har, hizkuntzen arteko oreka behar bezala mantentzen da webgunean eta iaztik zeuden hutsune batzuk ere aldatu egin dira. Hala nola:

- Zuzendariaren blogak aurreko edizioetan gazteleraz zuen izenbura *"El blog de director. De este Festival, del Jazz, de la música y todo lo demás (en este orden)"*. Aurten berriz, "Zuzendariaren bloga. Jazzaldi honetan, jazzaz, musikaz eta gainontzeko gauza guztiez (orden horretan)" jartzen du. Edukietan hala ere, bideoak zein idatzizko testuak gazteleraz izaten jarraitzen dute.
- Babesleen kasuan, euskal herriko entitateetan klikatzerakoan kasu batzuetan gaztelerazko bertsiora eramaten zintuen (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eitb, Basque Culinary Center eta euskadi.net) aurten berriz, euskarazko bertsioa duten webguneen kasuan euskarazko bertsioan zabaltzen dira. Bi kasutan ezik: Eitb eta Udal Informatika Zerbitzua.
- Sare sozialei dagokienez aipatu behar dugu, Twitterren eta facebooken antolakuntzatik idatzitako albisteak lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz izaten zirela gehienetan.
- Youtube kasuan, bideoen inguruan idatzitako informazio motza euskaraz.
- Vimeo argazki programan azalpen laburra gazteleraz, euskaraz eta jarraian gazteleraz idatzita zegoen.

Azkenik, ikusi dugun hutsunetako bakarrenetakoa, "nola iritsi" atalean autoa partekatu aplikazioa gazteleraz zegoen: "comparte coche", "vuscar viaje".

2.6. Jazzaldiko kartela

Aurten ere, Jazzaldia iragartzeko kartelean, azaltzen den informazioa laburra bada ere, euskaraz eta gaztelaniaz dago.

2.7. Bestelakoak: paisai linguistikoa, ...

Agertokien inguruan jarritako panel, kartel eta euskarriak orokorrean ele bitan edo hiru eletan zeuden. Hala ere, urtero aipatzen dugun Zurriolako hondartzako Agertoki Berdeari dagokionez, eszenatokiaren goiko aldean "Escenario Verde" irakur zitekeen gazteleraz bakarrik.

Kursaaleko Zurriola terrazan Fnac-ek zuen postuan, txartel gehienak bi eletan idatzita bazeuden ere, itzulpena ez zen oso zuzena (edo egokia).

Hala nola: "Egin ezazu bazkide eta eskatu oparia". Bestalde, txartel batzuk gazteleraz bakarrik topatu genituen:



Coca-Cola Agertoan, berriz aldaketa egon da: Iaz "Escenario único" izendatu zuten eta aurten bi eletan jarri dute "eszenatoki berdingabera, escenario único". Hala ere akatsa dago "berdingabea" izan beharko luke eta ez "berdingabera".



Iaz



Aurten

Kursaaleko terrazetan, bestetik, Kataluniako stand-een jarri zituzten txartelak katalanez eta euskaraz idatzita zeuden.

Frigo gunean, aldiz, Prineu Girona"k jarritako karpan euskararen arrastorik ez genuen ikusi.

Berdin gertatu zitzaigun, San Martin Merkatuan. Ikusitako kartelak gazteleraz aurkitu genituen (pintxo potearenak hain zuzen).

Bestelako paisaia linguistikoa, ele bitan edo lau eletan topatu genuen. Hala nola, Jazzaldiko faroletako zintzilikarioak, pankartak, agertokiak seinaleak, oharrak, ...

3. Ahozko erabilera

3.1. Prentsaurrekoak

3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpen prentsaurrekoak.

49. Heineken Jazzaldiaren behin betiko egitaraua, ekainaren 27an aurkeztu zen, Victoria Eugenia Antzokiko Foyer-ean. Juan Karlos Izagirre Donostiako alkateak, Nerea Txapartegi Udal Gobernuaren Kultura arduradunak eta Miguel Martin Heineken Jazzaldiko zuzendariak programazioaren azken berriak ezagutarazi zituzten. Halaber, Jazzaldiaren babesle diren erakunde eta enpresetako ordezkariak izan ziren bertan. Parte hartzaile gehienak bi hizkuntzatan egin bazuten ere, gaztelera gehiago egin zen.

Aurtengo 49. Jazzaldiko aurkezpen prentsaurrekoari, bideo baten bidez eman zioten hasiera. Bideoarekin batera, off ahotsean, euskaraz lehenik eta ondoren gaztelera Nerea Txapartegi aurkeztu zuten. Nerea Txapartegik hitza euskaraz hartu zuen eta bere azalpenak bi hizkuntzatan eman zituen (hizkuntza bakoitzean informazio ezberdina eman zuen). Jarraian, Miguel Martinek hitz egin zuen gaztelera. Miguel Martinen ostean, Kartelaren egileek hartu zuten hitza. Biek gaztelera egin zuten. Jarraian hizkuntza gabeko bideo bat jarri zuten eta off ahotsean Esther Fernandillo aurkeztu zuten gaztelera. Fernandillok bi hizkuntzak erabili bazituen ere, gaztelera azalpen luzeagoak eman zituen. Ondoren, beste bideo bat proiektatu zuten (hau ere hizkuntza gabekoa) eta musika banda batek jo zuen jarraian. Musika bukatzean, Donostia 2016 Kultur Programako kide batek hitz egin zuen bi eletan (euskara eta gaztelera tartekatu zituen. Informazio bera eman zuen bi hizkuntzatan). Eluska Ugaldek (Heineken Jazzaldiko prentsa arduradunak) eman zion jarraipena prentsaurrekoari Jazzaldiaren programazioan parte hartuko zuten 4 jatorriko inguruko informazioa emanez euskaraz. Azkenik, Juan Karlos Izagirrek eta Pablo Mazok hartu zuten hitza. Alkateak bi hizkuntzak (euskara eta gaztelera) tartekatu zituen (hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanez). Pablo Mazok berriz, gaztelera hutsez aritu zen.

Agurra off ahotsean egin zuten euskaraz eta gaztelera ondoren.

3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk

Ekainak 20, 49. Heineken Jazzaldiko Txikijazz egitaraua aurkeztu zen, Alderdi Ederreko karruselean. Bertan, Nerea Txapartegik (Udal Gobernuaren Kultura arduraduna), Xabi Puertak (SGAEko Euskadiko

lurralde-kontseiluko lehendakaria), Iker Tolosak (Donostia 2016 Kultur Programako kidea), eta Miguel Martinek (Donostiako Jazzaldiko zuzendaria) txikienei zuzendutako egitarau berriaren xehetasunak eman zituzten.

Eluska Ugaldek eman zion hasiera prentsaurrekoari euskaraz eta jarraian Nerea Txapartegik hartu zuen hitza bi eletan (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz informazio bera eman zuen). Xabi Puertak berriz, gazteleraz eman zituen bere azalpenak. Donostia 2016ko arduradunak, Nerea Txapartegik bezala, bi hizkuntzetan egin zuen (lehenik euskaraz eta jarraian gazteleraz). Ondoren, Miguel Martin aritu zen gazteleraz. Azkenik, haur jardueren inguruan hitz egin zuen neska batek, honek ere, bi hizkuntzak erabili zituen eta agurra gazteleraz egin zuen.

Uztailak 10, aurten lehen aldiz Heineken Jazzaldia hainbat auzotara zabaldu zen eta horren berri emateko Donostiako bi kultur etxeetan egin zituzten aurkezpenak. BAGERA Elkarte Intxaurreondoko Kultur etxean izan zen.

Miguel Martinek eman zion hasiera prentsaurrekoari gazteleraz. Jesus Troquemadak, aldiz, euskaraz irakurri zuen. Amaieran, Miguel Martinek azken ohar bat eman zuen gazteleraz. Makala musikariak euskaraz egin zituen kantuen aurkezpenak.

Aurkezpena orokorrean hartuta gaztelera gailendu zen (Gazteleraz %60 (Miguel Martinek hitza egindakoa) eta euskaraz: %40 (Jesus Torquemadak eta Makalak hitz egindakoa)).

Uztailak 10, 49. Heineken Jazzaldian publikoari irekita izango den Practice Your Music instalazioa aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko Prentsa Aretoan. Instalazioak musika zaleek musikari profesionalekin jotzen aritzeko aukera emango zuena. Bertan Miguel Martin (Heineken Jazzaldiko zuzendaria) eta Aitor Narbaiza (Practice Your Music-eko arduraduna) izan ziren.

Miguel Martinek eman zion hasiera prentsaurrekoari gazteleraz. Jarraian Aitor Narbaiza aurkeztu zuen eta honek bi eletan egin zuen (gazteleraz azalpen luzeagoa egin zuen). Ondoren aplikazioaren azalpen praktikoa egin zuten gaztelera hutsez.

Aurkezpena orokorrean hartuta gaztelera gailendu zen nabarmen.

Uztailak 15, Heineken Jazzaldiak eskaintza gastronomikoa aurkeztu zuen, Zurriola pasealekuko Ni Neu jatetxean. Bertan, Heineken Jazzaldiko kideak eta ekimenean parte hartu zuten enpresa eta jatetxeetako ordezkariak izan ziren.

Aurkezpenak bi hizkuntzatan egin baziren ere, ondoren prentsaurrekoan parte hartu zuten gehienek gaztelera hutsez hitz egin zuten. Interbentzio bakarra izan zen euskaraz, Mirador Uliako Rubenek egindakoa.

Musika taldeen prentsaurrekoetan, oro har gaztelera izan da nagusi. Aurten ere, Jesus Torquemadaz gain, Katixa Garate (Heineken Jazzaldiko prentsako kidea) prentsaurrekoetan izan zen euskaraz galdetzen zuten kazetariei erantzuna euskaraz emateko. Hala ere, musika taldeko partaideak beste hizkuntza batean aritu direnean itzulpena beti lehenengo gazteleraz egin da eta jarraian euskaraz. Galdera gutxi izan dira euskaraz baina egin direnean, galdera hauen erantzuna lehenengo gaztelerara (Torquemadak) eta ondoren euskarara (Katixak) itzuliak izan dira.

Normalean Jesus Torquemadak edo Katixa Garatek hasierako agurra euskaraz eta gazteleraz egiten zuten. Ondoren, prentsaurreko gehienak gazteleraz izaten ziren, bai Torquemadak edota kazetariak prentsaurrekoan parte hartutako kideei galderak gazteleraz egiten zitelako, edo beste hizkuntzetan hitz egiten zuten musikarien itzulpena gaztelerara egiten zutelako. Prentsaurreko batzuetan hala ere, Katixak, laburpen bat euskaraz egin ohi zuen.

3.1.3. Balorazio prentsaurrekoa

Uztailaren 28an, 49. Heineken Jazzaldiaren balorazio prentsaurrekoa izan zen Udaletxeko Gobernu Batzorde Aretoan. Bertan, Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea, Nerea Txapartegi Kultura eta Euskara delegatua eta Miguel Martín Heineken Jazzaldiko zuzendaria izan ziren.

Torquemadak sarrera eta parte hartzaileen aurkezpena euskaraz egin zuen. Juan Karlos Izagirre izan zen lehenengoa hitza hartzen (euskaraz eta ondoren gazteleraz). Jarraian, Nerea Txapartegik euskaraz eta jarraian gazteleraz egin zuen. Azkenik, Miguel Martinek hartu zuen hitza gazteleraz.

Galdera tarteari dagokionez, galdera gehienak gazteleraz izan ziren bat izan ezik. Honakoa ingelesez izan zen eta Miguel Martinek gaztelerara itzuli egin zuen.

3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

Behatutako kontzertuen aurkezpenak, egon diren kasuetan, lekuaren eta taldearen arabera izan dira. Aurkezpenak megafoniatik izan direnean (antolakuntzak egindakoak) ele bitan izan dira, are gehiago, euskarak lehentasuna izan du.

Behatutako kontzertuetan aurkezpena taldeak egin duenean aldiz, denetarik egon da (Hala nola, James Vincent McMorrow ingelesez, Telmo Trio, Ukulele Clan Band, gazteleraz gehien bat, Rodrigo Martins & Band, Seminal Jazz, gaztelera hutsez, Victor de Diego, Proyecto Viruta gehien bat euskaraz). Beste talde batzuk beraien herrialdetako hizkuntza erabili zuten aurkezpena egiteko.

3.3. Kontzertuetan zehar musikariek abestien tartean erabili duen hizkuntza.

Kontzertu gehienetan musikariek ez dute aipamenik egin abestien artean, baina, egin dituzten kasuetan ingelesa izan da gehien erabili zuten hizkuntza, baita gaztelera ere. Euskara "eskerrik asko" esateko bakarrik entzun dugu zenbait kontzertutan. Donostiako Musika Bandaren kasuan, jarduera bi eletan egin bazuen ere, abeslari nagusiak hitza hartu zuen gehienetan gazteleraz egin zuen.

3.4. Bestelakoak

Kursaaleko Auditorioan, San Telmo Museoan, Trinitate enparantzan zein Victoria Eugenia Antzokiko sarreretan zeuden langileen artean, gehiengoak euskaraz erantzuteko gaitasuna erakutsi zuten. Baina lehen hitza beti gazteleraz izaten zen. Oharrak ematen zituztenean ere gaztelera izaten zen erabiltzen zuten hizkuntza bakarra.

Okendo plazan, Victoria Eugenia eraikinean, Jazzaldiko informazio-bulegoa egon zen. Bertako langileekin euskaraz hitz egiteko aukera izan genuen.

Bestetik, agertoki ezberdinetan jarritako tabernetan iazko Jazzaldiarekin alderatuta arazoak izan ditugu euskaraz artatuak izateko. Trinitateko tabernan guztiek ez zekiten euskaraz eta zekitenek gazteleraz erantzun ziguten. Nauticooleko barran berdin gertatu zitzaigun. Euskaraz ulertzen bazuen ere ez zen gai izan euskaraz erantzuteko. Frigo gunean euskaraz egiteko aukera izan genuen baina beraien lehen hitza gazteleraz izan zen. Coca-Cola gunean zerbitzatu zigun langileetako batek zailtasun handiz euskaraz erantzun zigun.

Guneetan topatu ditugun bestelako langileak, orokorrean gaztelera izaten zen lehenengo hitza eta ondoren euskaraz egitean euskaraz jaso dugu erantzuna.

3.5 TxikiJazz

Egitasmo hau familiei zuzendutako haur aisialdi eskaintza aberastu eta haurrak haurtzarotik kulturara hurbil daitezen sortu zen iaz.

BAGERA Elkartek haurren ekintzei garrantzi berezia eman izan die beti, adin horietan, aisialdian, euskara sustatzeak duen garrantzia nabarmena baita. Gainera, euskara normalizatzeko plan guztietan berebiziko garrantzia du, baita Donostiako Plan Orokorrean ere. Hau horrela, aurten TxikiJazzean izandako ekimen gehienetan euskara erabili bada ere, "Create Gunean" aurpegi margotzea eta bestelako esku lanak egiteko mahaiak zeuden. Begiraleek bazekiten euskaraz baina lehen hitza gaztelera erabili zuten. Bestelako ekimenak euskaraz edo hizkuntzarik gabekoak izan ziren.

4. Ondorioak

Iazko Jazzaldian egindako aurrerapausoak mantendu eta hainbat hobekuntza topatu ditugu, hala nola, programazio liburuxkan hizkuntza zuten iragarki guztietan euskara erabili da. Hala ere, oraindik beste hainbat akats errepikatzen dira.

Idatzizko hizkuntza

Antolakuntzak argitaratutako idatzizko materialean, Jazzaldiaren egitarau osatua, egitarau laburtua, e.a., elebitasuna nagusi izan da eta lehenengo hizkuntza oro har, euskara izan da. Elebitan dauden testuak (euskaraz eta gaztelera), bata bestearen itzulpen literalak dira. Eta beti lehenik euskaraz eta ondoren gaztelera idatzita daude.

Egitarau laburtuan, egitarau osatuan eta oro har idatzizko materialean azaltzen diren iragarle etxeen iragarkietan euskara erabili da. Hemezortzi iragarkitik 8 izan dira bi eletan, 3 euskara hutsez eta beste 3 lau hizkuntzatan. 2 iragarkietan gaztelera gailendu bada ere euskara ere erabili dute. Bada beste iragarki bat euskara eta ingelesa erabili duena. Azkenik, Hizkuntza gabeko iragarki bakarra izan da. Zoriontzekoa da, beste jaialdietan ez bezala, babesleek euskara erabiltzea beraien iragarkietan.

Antolakuntzatik jasotako oharretatik gehiengoak bi eletan edo euskaraz jaso ditugu, bi hizkuntzak erabili diren kasuetan, lehentasuna euskarak izan duelarik.

Web orrian ere, euskara da lehenengo hizkuntza eta ondoren aukeratzeko aukera ematen du gaztelera edo ingelesez.

Agertokien izenetan, iaztik aldaketa bat egon da. Coca-Cola agertokian iaz izenburua gaztelera hutsez jarri zuten. Aurten berriz, bi eletan: "eszenatoki berdingabera / escenario único". Baina akatsa dago, "berdingabea" izan beharko litzateke eta ez "berdingabera". Agertoki berdean berriz, gaztelera izenburua jarraitzen du izaten: "Escenario verde".

Fnacen kasuan ere, aldaketa bat egon da; kaleratutako hilabeteko agendan Jazzaldiaren inguruko informazioan egitaraua aurten lehen aldiz euskaraz idatzi dute. Hala ere, sarrerako testua gaztelera hutsez idatzi dute.

Bestelako paisaia linguistikoan ikusi genituen ohar, txartel zein pankartak bi eletan idatziak ikusi ditugu, euskarari lehentasuna emanaz. Hala nola, Kursaalera argibideetan, txosnetako prezio eta oharretan, agertokiaren seinaleetan ...

Hutsuneak, Frigo gunean, "Prineu Girona"k jarritako karpan (euskararen arrastorik ez), Fnac-eko postuan (zenbait txartel gaztelera topatu genituen), Maria Cristina Hotelean (bertako edarien inguruko kartak) eta San Martin merkatuan (pasaia linguistikoa gaztelera izan dira).

Ahozko hizkuntza

Ahozko hizkuntzari dagokionez, **aurkezpen** grabatuak egon direnetan elebitasuna mantendu da, lehenengo hizkuntza euskara izanik eta ondoren gaztelera.

Megafonia egon ez den kasuetan, aldiz, musikariek egin dutenean gaztelera gailendu da. Aurten, euskal taldeen presentzia ere aipatzekoa da baina aurkezpena euskaraz hiru taldek bakarrik egin dute (Victor de Diego, Proyecto Viruta eta Telmo Triok – kasu honetan euskara erabili bazen ere gaztelera gehiago egin zuten). Alabaina, kontzertu gehienetan ez da aurkezpenik egin eta musikarekin hasten zuten kontzertua.

Kontzertuaren bitartean taldekideren batek hitz egin duen kasuetan, oso talde gutxi erabili zuten euskara (Columbia Jazz Band, Proyecto Viruta eta The Bronsonak, hain zuzen). Aipatzekoa da, Donostiako Musika Bandak, jardura bi eletan egin bazuen ere, abeslari nagusiak hitza hartu zuen gehienetan gaztelera egin zuela. Bestetik, bestelako kontzertuetan gaztelera eta ingelesa izan dira hizkuntza nagusia (behatu ditugun kontzertuetatik 20tik gora gaztelera edo ingelera erabili dute).

Langileei dagokionez, gehienekin euskaraz egiteko aukera izan dugun arren aurten atzerapausoa egon dela ikusi dugu. Sarreretako langileen lehen hitza gaztelera izaten zen orokorrean, baina, euskaraz agurtu edo galdetu dugunean euskaraz jaso dugu erantzuna euskaraz zekiten kasuetan. Baina, tabernetan zeuden langile askok ez zekiten euskaraz edo ez ziren gai euskaraz erantzuteko. Hala nola, nauticool gunean, Trinitate plazan, San Martin azokan edota Heinekeneko tabernan.

Bigarren urtez **TxikiJazz** ekimenena antolatu zuten, Jazzaldian zehar hiru egunetan haurrentzako ekintza ezberdinak eskainiz. Jarduera guztiak doakoak eta euskaraz eskaini zituzten Tamayok antolatutako Crearte Gunean aurpegi margotzea eta bestelako esku lanak egiteko mahaietan izan ezik. Begiraleek bazekiten euskaraz baina lehen hitza gaztelera erabili zuten.

Prentsaurrekoetan erabiltzen den hizkuntza, gaztelera izaten da nagusi. Euskararen erabilera zertxobait hobetu den arren, oso urria izaten jarraitzen du. Positibotzat jotzen dugu udal ordezkariak izan direnean ele bitan egin dituztela interbentzio guztiak eta horretaz gain, hirugarren urtea da espresuki euskaraz erantzuteko prentsa arduradun bat dagoela prentsaurreko guztietan. Hala ere, bere parte hartzea oso txikia izan da eta horretaz gain, galderak euskaraz, edo beste hizkuntza batean izan direnean itzulpena gaztelera egin da lehenengo eta ondoren euskaraz.

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra izan da, antolakuntzak kaleratzen duen material idatzian elebitasuna mantendu da baina oraindik ere badira hainbat hutsune zuzendu daitezkeenak. Hala nola, langile zein tailerretako dinamizatzaile euskaldunak izatea eta lehen hitza euskaraz izaten ahalegintzea, bertako musika taldeek kontzertuetan euskara erabili dezaten animatzea, prentsaurrekoetan euskararen erabilera areagotzea, Jazzaldiak parte hartzen duen gunetan pasai linguistikoa zaintzea...

Hau horrela, jazzaldiko antolatzaileak gonbidatu nahi ditugu, kontuan har ditzaten aipatutako hutsuneak datorren edizioari begira eta emandako aurrerapausoak egonkortu ditzaten atzerapausorik egon ez dadin. Bestetik, hutsuneak zuzentzeko egiten duten ahalegina aitortu eta horretan jarrai dezaten animatu nahi ditugu.

Azkenik, BAGERAk Jazzaldiko antolakuntzari eskerrak eman nahi dizkio gure lana egiteko ematen diguten laguntzarengatik eta euskararen normalizazioan ematen dituzten aurrerapausoengatik. Bide batez, aurrerantzean euskararen aldeko lanean laguntzeko prest izango gaituztela gogorarazi nahi diegu.



Katalina Eleizegi, 36 behea
20009 Donostia
Tel: 943467181
bagera@bagera.net